



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Lehendakaria, agintariak, legebiltzarkideak, euskaltzainak, Koldo Mitxelenaren familiakoak, legebiltzarreko langileak, ekitaldira etorritako Zarauzko neska-mutilak, jaun andreok: Agur.

Euskara plazan da, auzoko eta munduko plazan, eta hori aldarrikatu nahi dugu, hain zuzen, gaur ospatzen dugun Euskararen Nazioarteko Egun honetan. Baina, aldarrikapen hau ez dugu egun bakarrera mugatzen, euskarak 365 egun baititu urtean.

Hori adierazi nahi diogu euskaldunoi, gizarteari eta herritarroi. Euskara gure esku da eta gu bakarrik gaitu. Mintza dezagun, idatz dezagun, erabil dezagun hitzetik hortzera, etxean eta kalean; ikasteko, jolasteko, lan egiteko, bizitzeko... Zabal dezagun euskara. Hori da gure mezua.

Bernat Etxepare eta Koldo Mitxelena ditugu bide erakusle, beraien bidez irudikatzen dugu euskarak izan duen ibilbidea. Mitxelenak zion: *"eragozpenak eragozpen, plazara ginen Etxeparez geroz, eta plazan iraungo dugu, gerta ahala gerta, baldin asmoz eta jakitez -ausarki, eta halere neurritz- jokatzen badakigu"*.

Euskara eta euskal kultura munduko lau haizeetara zabaltzeko beharra ikusi zuen XVI. gizaldian Etxeparek. Ia bost mende geroago, guk, XXI. mendeko euskaldunok, gure kultura eta hizkuntza herriko eta munduko plazan nahi ditugu. Jakinda, betiere, harremanak bi alde dituela. Gurea eman eta bestetatik jaso nahi dugu.

Hori da *Linguae Vasconum Primitia*eren bertsio eleaniztun berri honen sakoneko esanahia. Liburu hauekin, Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak euskararen eta hizkuntza-aniztasunaren aldeko apustua egiten dugu.

Euskara hizkuntza bizia da. Hizkuntza modernoa. Gaur egungoa eta gaurkotua, gure gizarteak erabiltzen eta sustatzen jarraitu nahi duena. Bete egin da, oso urte gutxiren buruan, Lizardiren nahi hura: *"baina nik, hizkuntza larreakoa, nahi haunat ere noranahikoa. Jakite hegoek igoa; soina zahar, berri gogod"*. Ametsa egi bilakatze horretan, erabakigarria izan da euskara batuaren eragina. Irakaskuntzatik komunikaziora, literatur sorkuntzatik lan mundura, administratibotik gizartera, alor guztietan sumatu dira hizkuntza batasunaren onurak.





Ehun urte betetzen direnean Koldo Mitxelenaren jaiotzatik, Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak aitortu nahi diogu Errenteriako maisu handiari euskara biziberritzeko oinarriak finkatzerakoan egin zuen ekarpena. Bidegile izan genuen, bide erakusle dugu.

Euskarak inoiz izan duen baino hiztun gehiago ditu eta gure hizkuntzak alor berriak irabazi ditu, zaharrak galdu gabe. Hori horrela gertatu izana, lehenik eta behin herritarren euskararekiko atxikimenduari zor zaio, eta Euskararen Legean oinarrituta herritarren borondatearen neurriko hizkuntza politika hezurmamitu izanari.

Aurrera egin dugu euskal gizarte elebidunaren bidean, orain hurbilago gaude helburu horretatik, baina asko dugu egiteko. Egin dugun bidea baino askoz luzeagoa dugu gure aurrean. Erronka erabileran dugu eta horri aurre egiteko denok gara deituak, herritarrak eta herri erakundeak. Guztiok indarrak batzen ditugun neurrian, euskarak aurrera egingo du bizkorrago. Bide hori elkarrekin egitera dei egin nahi dizuegu eta euskararekiko gure konpromisoa berretsi nahi dugu.

Euskara plazan da eta goazen denok dantza horretara!





Lehendakari, autoridades, parlamentarias y parlamentarios, académicas y académicos, familiares de Koldo Mitxelena, personal del Parlamento, jóvenes de Zarautz asistentes al acto, señoras y señores, buenos días.

El euskera ha salido a la plaza pública, a la plaza cercana y a la plaza del mundo, y eso es lo que queremos pregonar en este Día Internacional del Euskera que celebramos hoy. Una reivindicación que no limitamos a un único día, puesto que el euskera tiene 365 días al año.

Y eso es lo que queremos manifestar a las vascas y vascos, a la sociedad, a la ciudadanía. El euskera está en nuestras manos y solo nos tiene a nosotros. Hablémoslo, escribámoslo, utilicémoslo continuamente, en casa y en la calle; en la enseñanza, en el juego, en el trabajo, en la vida... Vivamos el euskera. Ese es nuestro mensaje.

Nuestros guías son Bernat Etxepare y Koldo Mitxelena, a través de ellos representamos el recorrido que ha seguido nuestra lengua. Mitxelena decía: *“A pesar de los obstáculos, estamos en la plaza desde Etxepare, y seguiremos en ella, pase lo que pase, si sabemos actuar con determinación y sabiduría, con valentía sí, pero con mesura”*.

Etxepare vio en el siglo XVI la necesidad de dar a conocer el euskera y la cultura vasca al mundo entero. Casi cinco siglos después, nosotros, vascos y vascas del siglo XXI, queremos que nuestra cultura y nuestra lengua estén en la plaza local y en la global. Sabiendo que la relación tiene siempre dos lados. Queremos dar lo nuestro y queremos recibir de los demás.

Ese el significado profundo de esta nueva versión multilingüe de *Linguae Vasconum Primitiae*, que hoy presentamos. Con estas ediciones, el Parlamento y la Academia de la Lengua Vasca hacemos una apuesta por el euskera y por la pluralidad y diversidad lingüística.

El euskera es una lengua viva. Una lengua moderna. Una lengua actual y actualizada, una lengua que nuestra sociedad quiere seguir utilizando e impulsando. Se ha cumplido, en muy pocos años, aquel deseo de Lizardi: *“Pero yo, lengua rústica, te quiero también para cualquier lugar: por las alas del saber elevada; el cuerpo viejo, nuevo el espíritu”*. En el proceso de convertir el sueño en realidad, ha sido decisivo el impulso del euskera batua. Lo de la lengua se han percibido en todos los ámbitos: e





comunicación, en la creación literaria y en el mundo laboral, en la Administración y en la sociedad.

Se cumple este año el centenario del nacimiento de Koldo Mitxelena, y el Parlamento y la Academia de la Lengua Vasca queremos reconocer al gran maestro de Errenteria la aportación que realizó para sentar las bases de la recuperación del euskera. Fue un pionero y es nuestro guía.

Hoy día el euskera tiene más hablantes que nunca y nuestra lengua ha conquistado nuevos ámbitos, sin perder los tradicionales. Ello se ha debido, en primer lugar, a la adhesión de la ciudadanía hacia el euskera, y también a haber llevado a cabo una política lingüística a la medida de la voluntad de la ciudadanía, sobre la base de la Ley del Euskera.

Hemos avanzado en la consecución de una sociedad vasca bilingüe, estamos ahora más cerca de ese objetivo, pero nos queda mucho por hacer. Tenemos por delante un camino mucho más largo que el que hemos recorrido. El reto lo tenemos en el uso, y para esa tarea estamos interpelados todos, ciudadanas y ciudadanos e instituciones públicas. Si somos capaces de unir fuerzas, el euskera avanzará más rápido. Queremos hacer un llamamiento para recorrer juntos ese camino y queremos ratificar nuestro compromiso con el euskera.

El euskera está en la plaza, unámonos todos a ese baile.

Euskara plazan da ta goazen denok dantza horretara!

